

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
50 positibo berri	1.629 hildako EAEn	89 positibo berri	530 hildako
3.459 positibo guztira*	6 UCIn EAEn	7.409 positibo guztira	6 UCIn Nafarroan

\*Hernanin 80 Astigarragan 25

## Jada 50 entitatek eman dute izena Euskaraldian Hernanin, eta ekimenak lanean jarraituko du

Uda garaia atsedenerako unea izaten bada ere, Euskaraldia-Euskara ari du ekimeneko lantaldeak gogoz ekin dio lanari, eta buru-belarri ari da herriko entitateei aurtengo ekimena azaltzen.

### HERNANI EUSKARALDIA

2018an herritarrak izan ziren protagonista hutsak, baina aurtun Euskaraldiak berrikuntza bat ekarri du: herritarrez gain, entitateek ere parte hartzeko aukera izango dute. «Entitate diogunean era guztietako talde motei buruz ari gara: talde soziokulturalak, kirol taldeak, auzo taldeak, elkarte gastronomikoak, dendak, tabernak, jate-txeak, enpresak...», azaldu dute.

Hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskeraren erabilera haunditzea da apustu sozial honen helburu nagusia. Hala ere, gero, egindakoari jarraipena ematea oso garrantzitsua dela adierazi dute Euskaraldiko arduradunek. Aurtun taldeentzat arigune izeneko figura sortu da. Ariguneak euskeraz lasai hitz egiteko guneak dira. Ariguneak izateko ezinbestekoa da taldeko guztiek euskaraz ulertzea: «Ulertzen dutenek asko eragin dezakete euskeraren sustapenean», esan dute. Gero, norbanakoaren egitekoa da bakoitzak taldean zer rol hartuko duen erabakitzea. Gainera, arduradunek taldeei eskatu diete beraien baitan identifikatzeko ariguneak zeintzuk diren, eta gero martxan jartzeko.

### Balorazio «oso positiboa»

Oro har, ekimenean lanean hasi zirenetik balorazio «oso positiboa» egiten ari direla adierazi dute. Izan ere, kalera atera diren aldietan harrera ona jaso dute bisita horietan guztietan. Horregatik, gerturatu eta parte hartu duten guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkiete

ekimeneko antolatzaileek. Izan ere, une hauetan jada 50 entitate daude izena emanda Hernanin eta udazkenerako entitate gehiagok izena emango dutela aurreikusitako dute. Izena eman dutenen zerrenda aurrerago argitaratuko dutela jakinarazi dute, izen-emate epea bukatu baino aurretik.

Entitateei ahalik eta arreta pertsonalizatuena ematen saiatzen ari da lantaldea. Izan ere, garrantzitsua parte-hartzaileek ekimena zertan den ondo ulertzea dela uste dute, Euskaraldiaren 15 egunak ahalik eta arrakastatsuenak izateko.

### Izen emateko epea irailaren 27an bukatuko da

Aurtengo erronka azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarteko egingo da. Ariketa 16 urtetik gorakoentzat dago zuzenduta, «helduek egin behar duten zerbait delako», esan dute. Bestalde, Hernanin ez ezik, Astigarragan ere antolatu dira eragileak Euskaraldia aurrera eraman ahal izateko, eta herriko Udalen babesa eta onespena hasieratik izan dute.

Hernaniko entitateei gogorazi nahi diete entitateen izen-ematea irailaren 27an amaituko dela. Izena emateko hainbat bide daude: alde batetik, parte hartu nahi dutenek <https://ariguneak.euskaraldia.eus/> webgunean eman dezakete izena; eta bestetik, lantaldearekin harremanetan jar daitezke [euskararaidu@dobera.eus](mailto:euskararaidu@dobera.eus) helbidera idatziz edo 689675462 telefonora deituz eta izena emateko prozesu osoan lagunduko diete.

Esan bezala, talde eta el-



Euskaraldian parte hartuko duten zenbait talde, ahobizi, belarriprest eta arigunearen ikurrekin.

karteei zuzendutako ekimena da. Dinamika aurtun entitateei zuzentzearen arrazoiak da, «taldean aritzeak hizkuntza ohiturak aldatzen lagundu dezake». Horregatik, aurtun fokua taldeetan jarriko da lehenengo, eta gero iritsiko da norbanakoaren txanda, udazkenean. Asmoa da taldeek beraien baitan egitea dinamika eta gero, norbanakoan parte hartzea animatzea.

Hala ere, norbanakoaren kasuan, irailerarte ez da beraiei zuzendutako kanpaina hasiko. Prestakuntza lanak ere urrian hasiko dira, orain buru-belarri ari direlako entitateei zuzendutako ekimenean lanean. Banakako txanda hasten denean, izen-emateko epea irailaren 24an irekiko da. Eta formakuntza saioei dagokienez, azaroan izango dira.

Euskaraldia-Euskara ari du

ekimenean lantaldeak hernaniarrei ohartarazi nahi die Euskaraldia hizkuntza-ohiturak aldatzeko «entrenamendu bikaina izango den arren, beroketa-lan baino ez dela», eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa urte osokoa dela. Horregatik, herritarrak animatu dituzte ekimenean parte hartze- ra ez ezik, urteko 365 egunetan hizkuntza-ohitura horiek aldatzen saiatzera.

Izan ere, arduradunek adierazi zuten moduan, ekimenean funtsa «ez da euskeraren alde egitea, euskeraren alde egotea baizik». Hau da, ez da aldekatasun kanpaina bat. Beraien esanetan, Hernanin euskeraren aldeko oso jarrera ona dago. Hala ere, erderarako ohitura «barneratua eta normalizatua» dago, eta horregatik jarri da martxan ariketa sozial hau.

### Bulegoa itxita, zenbait astez

Arduradunek jakinarazi dute asteazkenetik aurrera Euskaraldia-Euskara ari duren bulegoa itxita egongo dela, abuztuaren 24ra arte, udako oporrak direla eta. Hala ere, telefonoak eta helbide elektronikoak martxan jarraituko du, talde eragileak lanean jarraituko duelako. Beraz, tarte horretan jendeak beraiekin harremanetan jarri nahiko balu, «ez luke arazorik izango», adierazi dute.

Bestalde, Euskaraldiaren dinamikaren baitan, hainbat ekimen antolatu dira. Irailaren 23an Kike Amonarrizek liburua aurkeztuko du eta urrian, Joxerra Gartzia 4 saioko tailerra emango du, ostegunetan. Gainera, urriaren amaieran Gemma Sanginesek hitzaldi-tailerra eskainiko du. Aurrerago emango dute honen berri, arduradunek. **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

· 638 421 060 ·

Hernani - Astigarraga - Donostia

Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**EGURALDIA GAUR** Ezegonkortasunekin jarraituko dugu, baina hodei gubiago espero dira. Arratsalde partean ekaizetarako joera izango du eguraldiak eta tenperaturak behera egingo du. **Min.20° / Max.26°**

**BIHAR** Goizean giroa lasaia izango da, baina arratsaldean eta gauean nahastera egingo du; ekaizak eta zaparradak espero dira. Lehen orduetan haizea aldakor ibiliko da. **Min.18° / Max.27°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarra Udala**

**Dobera Udala**

**Goizuetako Udala**

**Aranoko Udala**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizuetako) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizuetako-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizuetako) **Egunez:** Castilla Urbietako, 7 (Hernani) 943 552941 **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizuetako: Nagusia 64 **948 514353**

**ELKARTEA**

**GOIZUETAKO UDALA**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Juanenea eta Larrañaga, larunbateko buruz burukoan.

## B Txapelketako txapelaldun izanda, Juaneneak hurrengo fasea jokatu du

Final laurdenetako ligaxkako lehenengo buruz burukoa Juaneneak eta Ansak jokatu dute ostegun honetan Galarretan, 16:00etatik aurrera.

**HERNANI ERREMONTEA**

Juaneneak irabazi du hurrengo fasera pasatzeko aukera ematen dion Kutxabank txapelketako B multzoko txapelketa. Saldiasako aurrelaria Larrañaga baino askoz hobea izan zen eta 13 tantotan bakarrik utzi zuen Larrañaga. Jokoaren arlo guztietan nafarra gipuzkoarra

baino hobea izan zen eta horregatik, merezimendu osoz pasa zen hurrengo kanporaketara. Hasieratik ihes egin zuen (6-0) eta 12-6koaren ostean zuzenean joan zen 24-7ra, partidua erraz 30-13 itxeko. Dirua 100-50 atera zen irabazlearen alde eta bete-betean asmatu zuten.

Juaneneak hobeto pilotatu zuen, hobeto atera zuen, hobe-

to ibili zen erretoan, gutxiago huts egin zuen... 20 tanto egin zituen pilotatzean, saketik lau eta huts bakarra egin zuen. Larrañagak sei akats eta 12 tanto egin zituen.

Jokatutako lehenengo partiduan Mirubia erremontera itzuli zen urte batzuk utzita egon ondoren, lehen Etxabe II.a zen. Iru-di ona eskaini zuen eta Zubirirekin batera 40-23 irabazi zioten Seguroa-Aizpuru II bikoteari. Honetan, Zubiri goizuetarra Aizpuru III.a baino askoz gehiago izan zen eta Mirubiak eroso jokatu zuen.

## 'Abuztua Donostian' martxan da jada, eta hamaika ekitaldi antolatu dituzte

Ohiko Aste Nagusirik izango ez den arren, abuztu osorako egitarau berezia antolatu du Donostiako Udalak, egun osoko plangintzekin.

**DONOSTIA ABUZTUA DONOSTIAN**

Koronabirusa dela eta, Aste Nagusia bertan behera uztea erabaki zuen Donostiako Udalak. Hala ere, ordeko proposamena egin zuen, eta hamaika ekitaldi eta ekimen antolatu dituzte udaleko Donostia Festak sailekoek, abuztu osorako. *Abuztua Donostian, abuztua kalean* lelopean, joan den larunbatean eman zioten hasiera jai egitarauari, eta giro ederra izan zen hiri osoan.

**Egiteko ugari, hiriko kaleetan** Atzoko egunean ere ez zen aspertzeko unerik izan. *Non daude buruhandiak?* jarduerak eman zion hasiera egunari, eta hiriko txokoren batean ezkatutako buruhandiak topatu behar izan zituzten, parte hartzaileek. Eguerdian bertsoariak izan ziren, Kurasleko terrazan. Bertsoan aritu ziren Maialen Lujanbio hernaniarra, Unai Iturriaga, Jone Uria eta Beñat Mujika. Kontzertuak ere izan ziren, arratsaldean.

**Aste osoan egongo dira ekintza, emanaldi eta egiteko ugari**

Aste honetan ere egiteko ugari izango da hirian, ia egun guztietan. Gaur atsedena egingo dute, baina bihar *Zurriola Street Food feria*, Gabilta artisau azoka eta *Non daude buruhandiak?* jarduerak izango dira.

Bestalde, Idoia Asurmendiaren kontzertua izango da, edukiera mugatuarekin, Erizainen plazan, 14:00, 19:00 eta 21:30etan. 18:30etan txaranga ibiltaria eta 19:30etan Antiguako 72garren Pilota txapelketa. Eta eguna bukatzeko *Ispiriten* gospel kontzertua egingo dute Trinitate plazan. Gonbidapenak online egongo dira eskuragai eta edukiera mugatua izango da honetan, baita ere. **K**

## Mendi martxa eta bazkaria larunbatean

Goizeko 09:00etan abiatuko da ibilaldia, eta bazkaria egongo da gero, 5 euroren truke. Aurretik izena eman behar da.

**HERNANI KONTRAKANTXA**

Hernaniko Gazte Asanblada eta Gazte Koordinadora Sozialistaren artean antolatu duten abuztuko egitarauaren baitan, mendi martxa eta bazkaria izango dira larunbatean honetan. Hiru orduko ibilaldia izango da, eta hainbat paraje ikusteko aukera izango dute. Gaztetxe gaineko eskaileretan hasiko da irteera, goizeko 09:00etan. Bertatik Ugaldetxora iritsiko dira eta gero, Urruzunoko basoan murgilduko dira, Pagoagako bailara heldu arte.

Abuztuko egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek, eta larunbatekoa da egingo duten laugarren jardura. Abuztuaren 28an izango da azken ekintza. Hitzaldi bat egingo dute, langile kontrolpeko espazioak eta jantoki soziala protagonistak izango dituen.

**Parte hartzeko aurretik eman behar da izena**

Ekintzan parte hartzeko izen abizenak bidali behar dira telefono zenbaki honetara: 689615598. **Gainera**, mendi martxaz gain, bazkaria ere egongo da aurrera, 5 euroren truke. Menu beganoa ere eskainiko dute, nahi duenarentzat. Mendi martxan eta bazkarian segurtasun neurri guztiak bermatuko direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta parte hartzeko maskarillaren erabilera beharrezkoa dela azpimarratu dute. **K**

## Haur antzerkia ostiralean, Atsegindegin

**HERNANI ANTZERKIA**

Uda Hernanin egitarauaren barruan, umeentzat *Panoli kabareta* antzerkia antolatu dute ostiral honetarako. Atsegindegin izango da, arrasaldeko 19:00etan. Ekitaldia doakoa da, baina alde aurretik gonbidapena eskuratu behar da Biterin, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Gainera, babes eta segurtasun neurriak hartu dira emanaldirako eta horregatik, ikusleek aukietan eserita egon beharko dute. Sarrera eta irteeran maskarilla jarri behar da eta gel desinfektatzailea eraman behar da.

## Bukatu da postalak aurkezteko epea

**ASTIGARRAGA ERRIBERA KULTURGUNEA**

Atzo bukatu zen Erribera kulturgunea inauguratzeko postalak entregatzeko epea. Izan ere, kultur etxe zaharra agurtzeko eta Erribera inauguratzeko proposamena luzatu zuen Udalak: postal batean bi gogoeta idatzi, bi marrazki egin edo bi sentsazio islatzea. Irailaren 12an irekiko ditu ateak kulturgun berriak, eta jaso diren postal guztiekin erakusketa bat egingo da Erriberan.

## Kultur jarduetarako dirulaguntzak, abian

**HERNANI DIRULAGUNTZAK**

Hilabete honetan argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kultur jarduetarako dirulaguntzen oinarriak. Eskaera Udaletxean egin daiteke eta epea abuztuaren 19an bukatuko da.

## Atletismo pista berria zabalik da jada

**HERNANI ATLETISMOA**

Berritze lanak bukatuta, atletismo pista irekiko dute, zenbait segurtasun neurriekin. «Arduraz jokatu eta gozatu!», diote.

**IRAGARKI MERKEAK**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**